

2006KO MAIATZAREN 9KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko maiatzaren bederatzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zume-laga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, esaten du COPRISA enpresak aspaldixamar egindako zenbait asfaltatze lanen neurketa dokumentuak Udaletxean galduta egon direla orain arte eta hori horrela izanik eta eguneko gai zerrendan ez badago ere, presazko izaeraz gaia eztabaidatu eta erabakitzea proposatzen duela.

Proposamena aho batez ontzat ematen da.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2006ko martxoaren 8an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2006ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 4 zbk.dun fakturen zerrenda, EHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI MILA HIRUROGEITA BAT euro eta LAUROGEITA HAMABOST zentimo (184.061,95 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- UDALETXEKO BIRMOLDAKETA LANEN ZERTIFIKAZIOAK.-

Jarraian IKENA 2001 S.L. enpresa burutzen ari den Udaletxeko birmoldaketa lanen bigarren fasearen bigarren eta hirugarren zertifikazioak aurkezten dira beren onarpenarako. Zertifikazio hauen zenbatekoak HIRUROGEITA ZORTZI MILA HIRUEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI euro eta LAUROGEITA HAMAIIKA zentimo (68.388,91 €)takoa eta EHUN ETA HOGEITA BOST MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA BI euro eta HOGEITA HAMABOST zentimo (125.282,35 €)takoa dira hurrenez hurren, eta udal arkitekto teknikoaren oneritzia daramate.

Honen aurrean eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin zertifikazio hauek onartzea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Erretiratu eta pentsiodunen elkarteari dirulaguntza.-

Orobione erretiratu eta pentsiodunen elkarteari bi mila lauehun eta lau (2.404 €) eurotako dirulaguntza ematea, jardueren garapenerako.

V.- IFARRA-HEGOA LANKIDETZA PROGRAMA.-

2006 urteko Ifarra-Hegoa Lankidetza Programan egon diren eskaerak aztertu ondoren, honako dirulaguntza hauek onartzea:

<u>ESKATZAILEA</u>	<u>PROIEKTUA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Prelatura de Cametá	Cametá, Brasilen, Aldeia hezkuntza zentroko erreforma.	6.000,00 €
Karitas	Inan, Beninen, Lazkao Etxea N'Daliko elizbarrutian.	9.600,00 €
Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza	Giharan, Rwandan, "Gihara 2006: bizitzeko duintasuna". Cara proiektuaren jarraipena etxebizitzak eraiki eta goseteari aurre egiteko egitasmoa.	9.600,00 €
Congregación de la misión, Padres Paules	La Barquita, Los Mina, Santo Domingo, Republica Dominicana. Margarita Naseau lehen mailako eskola.	6.000,00 €
Mundo solidario helburu	Diriamba. Carazo. Nikaragua. Gazte ezinduen gizarteratzea eta irisgarritasuna.	6.000,00 €
Medicus mundi Gipuzkoa	Etiopian Adigrat ospitalaren zabalkuntza.	2.035,00 €
Saharako errefuxiatu kanpamentuak		3.000,00 €

VI.- MUSIKA TALDEEKIN HITZARMENA.-

Jarraian eta Kirol eta Gazteria Batzordetik musika taldeen entsaio erabilerarako, hitzarmen bidez lokal baten lagapena egitea planteatzen da. Hitzarmen hau MAIKEL musika taldea osatzen duten Iker Huarte Ezeiza, eta Xabier Pelaez Gomezekin izenpetuko litzateke alde batetik eta bestetik beste musika talde bat osatzen duten Xabier Bergara Murillo, Imanol Salaberria Gartzia, Eneko Tejados Azpirotz eta Jon Lekuona San Sebastianekin eta utziko zaien lokala Udalak Zubierreka Industrialdeko atzekaldean duen gunean izango litzateke.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bere espedientean dagoen hitzarmen hau aztertu ondoren, berau onartu eta Udalaren izenean bera izenpetzeko Alkatea ahalmentzea erabakitzen du.

VII.- UDAKO KIROL KANPAINA.-

Kirol Batzordetik Udaoko Kirol Kanpaina 2006ko egitasmoa aurkeztzen da. Kanpaina hau ekainaren 26tik uztailaren 21era bitartean burutuko da. Kanpaina honen aurrekontua hamar mila zazpiehun eta bost eurotako (10.705 €) da eta ikastaroen diru-sarrerak eta

Foru Aldundiko dirulaguntza kontutan izanda aurrikusitako defizita hiru mila ehun eta berrogeita bost (3.145 €) eurotakoa da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, egitasmoa, bere espedientean dagoena, aztertu ondoren, Udako Kirol Kanpaina 2006 hau onartzea erabakitzen du.

VIII.- HAINBAT ASFALTATZE LAN.-

COPRISA enpresak egin dituen Hirigoiengo birrurbanizazio lanen barruan alde batetik eta kanposantuko aparkalekuen asfaltatze lanak bestetik aurkezten dira bere onarpenarako. Lan hauek udal arkitekto teknikoaren oniritzia daramate eta guztira berrogeita hamahiru mila zortziehun eta berrogeita hemeretzi euro eta hogeita bost zentimo (53.859,25 €) dira.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, lan hauen neurketa eta ondorioz etorriko diren zenbaki bereko fakturak onartzea erabakitzen du.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.